

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Lehenengo eta behin, gure hornitzaile garrantzitsuena argi dago dronaren piezak eta filtroak sortzen duen enpresa bat dela. Baita ere garrantzitsua da Adimen Artifizialarekin lan egiten duten enpresekin akordioak egitea. Enpresa hauekin izango ditugun akordioak horrelakoak izango dira: diruaren truke piezak erosiko dizkiegu, gure hornitzaileak izango dira.

Beste alde batetik, administrazio publikoekin harremanetan jarriko gara dronaren erabilpenari buruz finkatuta dauden arauak betetzen ditugula finkatzeko. Azken finean dronen inguruko legeak dioenez, hauek erabiltzeko baimen berezi bat behar da eta erabilera mugatua dago. Administrazio publikoak gure bezeroak izango dira baina autoritatea dutenez, baimen berezi bat eman behar digute erabilpena legezkoa izateko. Hori izango da gure akordioaren oinarria.

Garraio enpresa batekin ere lan egingo dugu bildutako plastikoak eta ekoitzitako dronak sakabanatzeko. Garraio enpresa hauek, gure dronak hainbat denda desberdinetara helaraziko dituzte eta aldi berean online eskaria egiteko aukera emango dute. Enpresa hauek azpikontratatuak ditugu.

Akordio hauen bidez, drona ez da salduko dugun ondasun bat bakarrik baizik eta, beste motatako hainbat zerbitzu eta erraztasun eskainiko ditugu hala nola, eskariak online egiteko aukera.

